

MIKEN GUSTOAK ETA PENTSAMENDUAK

Bazen behin Mike izeneko ume bat, 9 urte zituen eta super heroiak eta komikiak gustatzen zitzaion. Puerto Ricon bizi zen bere familiarekin, etxe handi batean itsasotik gertu. Mikek ez zuen anai arrebarik, bere guraso eta amonarekin bizi zen horregatik, beti kalera irtetzeko gogoz zegoen.

Egun batean Mike lagunekin kalera atera zen. Bera oso lasaia zen baina bere lagunak ez hainbeste. Bere lagunek gaiztokeri asko egiten zituzten eta berari ez zitzaion hori gustatzen.

Hurrengo asteetan bere lagunak goxoki dendako goxoki batzuk lapurtu zituzten poltsikoan sartzen eta ezkutuan eramaten, baina harrapatu egin zituzten. Mike eta bere lagunak zigortu egin zituzten baina Mikek ez zuen ezer egin bera ere zigortzeko. Gau hartan Mikek pentsatu zuen bere gela ondoko mutilekin kalera ateratzea. Horrela ez zuten berriro sigortuko, izan ere, bere gela ondoko mutilak oso lasaiak eta txintxoak ziren. Lagun berri hauekin liburutegira joaten ziren, komiki berriak topatzera, gero pipa batzuk erosi eta parkera joaten ziren pipak jan bitartean komikiak irakurtzera. Lagun berriak komiki asko irakurri arren, ez zuten berba egiten eta Mike aspertu egiten zen.

- Zuek hitz egin nahi duzue? -Esan zuen Mikek.
- Ez! - Erantzun zioten lagunak.
- Guri isilik egotea gustatzen zaigu.

Lagunak irakurtzen jarraitu zuten baina Mike aspertuta bere etxera joan zen.

- Ni aspertuta nago, orduan etxean geratuko naiz jolasten, margotzen eta irakurtzen. -Esan zuen Mikek. Mike etxean geratu zen aste osoan zehar baina ez zuen nahi lagunekin atera kalera bestela aspertu edo zigortu egingo zuten. Hortik egun batzutara bere lagunak etorri ziren barkamena eskatzera eta Mikek erantzun zuen.
- Barkatzen dizuet baina ez duzue berriro gaiztokeririk egingo eta denoi gustatzen zaigun gauzak egingo ditugu adibidez marraztu, irakurri edo jolastu.

Mikek faltan botatzen zuen lagunekin jolastea eta berba egitea historiako komikiei buruz eta orain lehen baino hobeto pasatzen zuen kalean lagunekin.

Hurrengo urtean hamar urtekin, kalean zeuden berba egiten eta halako batean arrapaketara jolastea iruditu zitzaion.

Mike geratzen zela erori eta min asko hartu zuen, orduan bere gurasoei

deitu zieten eta medikoarengana eramane zuten. Medikoan zeudela medikoak esan zien gurazoei.

- Mikek hanka apurtu du ordoan bi hilabete egon behar da muletekin eta kontuz ibili behar da.

Mike komikiak irakurtzen eta marrazten egon zen baina aspertuta zegoen.

Egun batean Mikerene lagunak bere etxera joan zirene eta egun hortan Mikek oso ondo pasatu zuen.

- Eskerrik asko lagunak nire etxera etortzeagatik. -Esan zuen Mikek.
- Ez orregatik laguna.
- Bezte egun batean etorriko gara. -Esan zuten lagunak.
- Bai lasai. -Esan zuen Mikek.

Hortik aurrera denak pozik bizi izan zirene baina izan ere Mike arrapaketara jolastene anka apurtu zuen eta hortik aurrera ipuinak idastea erabaki zuen.

Liburu arrigarri eta polit bat idatzi zuen bi urteetan zehar: Miken gustoak eta pentsamenduak.

Unia